

BEUSKARAREN BERRIPAPER A

HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA

Hogeita bost urtean 8.500 ikaslek ikasi dute Derioko Udako Euskal Ikastaroetan

Aurtengo uztailaren 4tik 16ra egingo den saioarekin hogeita bost urte beteko ditu Derioko Udako Euskal Ikastaroak. Lelotzat 25 urtean hautatu da, 1970etik gaurdaino etenbako ekinean dirauela adierazteko.

Ander Manterola gidari zela hasi zen Derioko Seminarioaren egoitzan orduko sasoiaren Karmelo Etxenagusia, Mikel Zarate, Lorentzo Zugazaga eta Jose Mari Irazola bezalako irakasle itzaldunak arduragun zituela.

Derioko ikastaroak euskaldunen ikastaroa izan da batez ere. Inguruan erdaldunentzat baino egiten ez ziren garaian, berbetaz euskaldun zirenak aintzat hartu zituen eta izaera horri eutsi dio gaur arte. Hitzun helduak euskararen eskolatzeko sortu zen ikastaro honen meriturik handiena, hala ere, ez da izan euskaldunak alfabetatzea, euskararen profesionalak sortzea baino. Iain 200 irakasle jardun dute bertan eskola ematen. Horietariko asko izan dira, irakasle izatez gainera, emaitza zabalagoa eskaini dutenak: irakas-materialen sortzaile, idazle edo kreatzaile, hizlari edo kazetari.

Derioko ikastaroak, asmoz eta emaitzaz, eskola dinamikoa izan dira; Labayru Ikastegian sail edo departamentu osoa

gorpuzteraino heldu den eskola sendoa.


Bestalde, eskolagintzan ez da izan alfabetatze soila; kulturagintza osoa bete du programa borobil eta oso baten bidez. Hizkuntzari hainbat garrantzi eman dio euskal literaturari, eta gure literaturaren bidez euskaldunon historia, ohiturak, sentiera eta pentsaera, euskaldunon mundua eta ikuspegia txertatu dizkio euskal ikasleari.

Derioko ikastaroak, bestalde, euskara osoa hartu du gogoan, gaurkoa eta lehengoa, hurrekoa eta urrunekoa. Ikasleen hizkeratik abiatu da, bizkaieratik, hurrengo pausua gipuzkera eta batasun-eredua

emateko, eta azkenik lapurtar-nafar ereduetan murgiltzeko. Gaurko erabileratik abiaturik, eredu klasiko eta zaharretara jo du eta gaur egungo Mirande, Atxaga edo Erkiagaren ondoan, Mogel, Kardaberaz edo Axular ezagutzera jo izan du.

Labur esateko, Derioko ikastaroak mogimendu zabala sortu du; bere 8.500 ikasle kopuru horren barruan, asko eta asko idazle, irakasle eta ikerlari bihurtzeraino heldu den mogimendua.

Hogeita bost urtean bizirik dirau Derioko Udako Euskal Ikastaroak, eta uztailean eta urrian egingo diren ospakizunen bidez handikiro ospatu nahi ditu Labayru Ikastegiak zilarrezko ezteiok.



Euskal hiztunak eskolatzeko izan da Derioko Udako Euskal Ikastaroen helburu nagusienetakoa.

Ander Manterola, euskal kultura aztertzen

Zeanurin jaioa orain 60 urte, Ander Manterolak Derioko apaizgaitegia utzi eta, ahal duelarik, egunero jaioterrira joatea du gustoko.

Abadetu zenetik (1957), bere bizitza lan pastoralaren eta akademikoaren artean banatu du.

Euskara eta euskal etnografia izan dira gehien landu dituen eremuak. Euskarari dagokionez, eragileztat du bere burua. Mikel Zarate zenak *emagina* deitzen zion, ideia eta ekintza askoren sorburuan zegoelako. Horietako

garrantzitsuenetakoa, Labayru Ikastegia, Louvainetik bueltan sortu zuten, apaizgaitegitik kanpoko euskaldunei euskaraz eskolatzeko bidea eskaini behar zitzaiea erabaki zutenean.

On Joxe Migel Barandiaranen eskutik euskal etnografiaren

munduan sartu zen buru-belarri 1972an. Hiru urte beranduago *Etniker Bizkaia* aldizkaria eta taldea sortu zituzten maisu ataundarraren



Ander Manterola

egitaraua eta metodologia erabiliz. Gainerako lurraldeetako Etniker taldeekin batera egindako lanaren emaitza oraingoz bi liburutan plazaratu da: *Etxeko elikadura* eta *Umeen jolasak*. Irailerako *Heriotzari buruzko ohikuneak* argitaratuko dute. Lan honen guztiaren idazkaritza eta erredakzio lana Labayru Ikastegian

egiten da.

Gaur egun Etniker Bizkaia eta Labayru Ikastegiko zuzendaritza eta Barandiaran Fundazioaren lehendakaritza daramatza. Ordu gehien, bada, etnografiari eskaintzen dizkio, hortxe uste du-eta murgildu beharra duela.

Elizen Arteko Biblia

Euskal Herriko eliza katolikoak eta protestanteak *Elizen Arteko Biblia* euskaraz plazaratu dute elkarlanean. Boskarren aldia da biblia osoa euskarara itzuli dela. Aurretik Duvoisin, Uriarte, Olabide eta Kerexetaren itzulpenak egin ziren. Hau, ostera, euskara batuan egin den lehena izanik, hebraierazko eta grekerazkoan oinarrituta egin da. Horretarako hainbat bibli zientzilariren laguntza izan dute itzulpen lanetan jardun duten 11 lagunek.

Itun Berria 1984an eta 1986an argitaratu ondoren etorri da *Elizen*

Arteko Biblia osoa. 3.000 orrialdeko biblia honen 15.000 aleko tirada egin da. Salgai 1.800 pta.tan.

elizen arteko
biblia



Udalerri euskaldunak.

Siadecok egin duen ikerketaren arabera, Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko (15.000 bizilagun biltzen dituzten Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako 20 herri euskaldun) merkatarien %89 euskalduna da. Euskararen erabilpena %80koa. Abiapuntu interesgarria euskaraz bizi nahi duten udalerrientzat.

Iruñean D ereduko aurrematrikulazioak gora

egin du nabarmen. Iaz baino 89 haur gehiago matrikulatu dira D ereduan (dena euskaraz irakasten da, eta gaztelania ikasgai), %17,5eko igoera, alegia. Ikastoletan D ereduaren eskaerak gora egin badu ere, igoerarik garrantzitsuena eskola publikoetan eman da. Ikusi egin behar Hezkuntza Sailak eskaera asetzeko lain irakasle eta bitarteko jar ditzakeen.

Otazu-Zulueta Fundazioa

sortu da Araban, euskara bezalako hizkuntza aurreindoeuroparrak ikertu eta ezagutarazteko. Goi mailako ikerkuntza eta zabalkundea uztartuko ditu Alfonso Otazu historialariak sortu duen fundazioak. Egoitza Zurbano herrian izango du, Otazu-Zulueta familiak duen XVII. mendeko jauretxean. Lehen ekitaldia etruskoari buruzko hitzaldia izan da.

"Herria" k 50 urte bete ditu.

Baionako Herria astekariak 50 urte betetzen ditu aurten. *Eskualduna* astekariaren jarraitzailea, Piarres Lafitte kalonje euskaltzaleak sortu zuen 1944an. Egun Emile Larrek zuzentzen duen *Herriak* 3.800 ale saltzen ditu astero. Datorren azarorako festa eta ekitaldi bereziak prestatzen ari dira: pilota partiduak, loteria, etab., hilabete hartan argitaratu baitzen lehen zenbakia.

Idatzitakoa nola ahoskatu eta mintzoaren soinua

Bere sorreraren 75. urtemugaren ospakizunen barruan Euskaltzaindiak III. Ahoskera Jardunaldiak egin zituen Bilboko egoitzan, aretoa bete partaiderekin. Arantzazun orain 25 urte bezala, ez zen erabakirik hartu, Ahoskera batzordea sortu zenetik hamar hilabete hauetan lan handia egin den arren, gaia gordin samarra bide dago eta. Erabakiak Euskaltzaindiaren hileroko bileretan hartuko dira.

"Guztiok batera mintzatzen ez garenez gero, gutxienez denok batera irakur dezagun" erabaki zuen Ahoskera batzordeak bizpahiru bilera egin eta gero. Horregatik, jardunaldion aztergai nagusia hizkuntza idatzia nola ahoskatu behar den izan zen.

Hiru ponentzia irakurri eta eztabaidatu ziren. Patxi Altunak *Hitz pareak* aurkeztu zuen. Forma bertsua izanda azentuagatik soilik bereizten diren ate eta ahate bezalako hitzak aztertu zituen. Jose Ignacio

Hualdek *Euskal azentuak eta euskara batua* irakurri zuen. Alor honetan gaia zenbateraino ezagutzen duen erakutsi zuen Estatu Batuetan irakasten eta ikertzen diharduen irakasle nafar honek. Miren Lourdes Oñederrak eta Pilartxo Etxeberriak *Ahoskera baturantz* aurkeztu zuten. Ponentzia honetan Ahoskera batzordeak aztertutako hainbat aholku agertzen ziren.

"Geroak esango du zeintzuk onartzen diren eta zeintzuk ez", esan zuen Patxi Altunak, batzordeko buruak. Ahoskera batzordekideak hauexek dira: Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegi*, Iñaki Gaminde, Pello Esnal, Juan Manuel Etxebarria, Pilartxo Etxeberria, Jose Ignacio Hualde, Lourdes Oñederra, Rosa Miren Pagola eta Xarles Videgain.

Jardunaldietatik ez da orientabiderik atera telekomunikabideetakoentzat, eurak baitira euskara irakurria eta mintzatua gehien erabiltzen dituztenak, baina aterako da.

Kike Pinedo, 32, Lapuebla de Labarkako Assa ikastolako zuzendari gasteiztarra *Araba Euskaraz* ekitaldiaren prestaketen buru izan da. Euskal Filologian lizentziatua EHUn, hamar urtez AEKn aritu zen lanean.

Iñaki Esnal, 38, aseguru artekari donostiarra lanean ari da aseguru polizak eta hauen inguruko paper guztiak euskaratzen. Dena prest dagoenean, horrela nahi duten euskaldunek autoaren edo etxearen aseguruak euskaraz ere egin ahal izango dituzte. Lan honetan EKB eta Donostiako Udaleko Euskara Patronatoaren laguntza du.

Adolfo Arejita, 40, irakasle bilbotarrak Juan Antonio Mogelen *Cristau eracastle euscalduna* liburua prestatu eta argitaratu du Labayru Ikastegian. Filologia Erromanikoan lizentziatua, EHUKo Informazio Zientzietako Fakultatean irakasten du. Hainbat libururen egile dugu.

Argitalpenak

Agerraldia

Argitalpen honek M. Karmen Garmendiak Eusko Legebiltzarrean egindako azken agerraldiaren berri ematen du. Hizkuntza politikaren etorkizuna du aztergai. Azken urteotako ibilbidearen emaitzak, hizkuntza politikaren ildo nagusiak eta aro berriaren atarian HPINek markatzen dituen lehentasunak eta ikusten duen berregituraketaren beharra azaltzen ditu.



EUSKARAREN BERRIPAPERA zure etxean doan jaso nahi baduzu edo ezagunen bati bidaltzea nahi, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia
Wellingtongo Dukea, 2
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Euskaraz Gazteleraz

Izen-deiturak:
Helbidea:
Herria:
Kodea:
Lurraldea:
Tel.:

Galdezka

Etorkizunerako lehenetsunak

G. Zeintzuk dira hizkuntza politikaren lehenetsunak etorkizunerako?

E. Hizkuntza politikaren lehenetsuna hurrengo urteotan euskaldunen arteko euskararen erabilera bultzatzea izango da, ghettoerian erori gabe. Euskararen erabilera sustatzea gizarte osoa uztartzeko bide da, hizkuntzei eta, batez ere, hiztunei euskal gizartean beren lekua eginez, ez, ezinbestean, gaur egun daukatena, baizik eta euskal hiritarrok askatasunez aitortu nahi dieguna.

Hauexek dira, bada, euskararen normalkuntza lortze aldera geuk proposatzen ditugun lehenetsunak:

- Euskararen ondorengotaraztea bermatzea.
- Euskararen ohizko erabilera eremuak sendotzea.
- Euskararentzat hiztun berriak irabaztea.
- Euskararentzat erabilera eremu berriak irabaztea.

M. Karmen Garmendia.

Hizkuntza Politikarako idazkari nagusia

Iparraldeko ikastolek aurten 25 urte

Ipar Euskal Herriko lehen ikastola 1969an sortu zuen guraso euskaldun talde batek Arrangoitzeko etxebizitza batean, irakaskuntza euskaraz eta euskal kultura bultzatzeko helburuarekin. Hogeita bost urte beranduago 90 irakaslek 1.300 ikaslerekin egiten dute lana Seaskak dituen 18 ikastoletan.


Frantziako Estatuak Seaskak duen aurrekontuaren %70 estaltzen du. Izan ere, orain artean 15 urte arterainokoan gastuak hartzen baitzituen bere gain. Gainerako %30 gurasoek bete izan dute. Hala ere, Seaskak eskola estatutu normalizatua lortu nahi du Iparraldeko ikastolentzat. Hori dela eta, negoziazioetan ari da Frantziako Estatuarekin lizeo mailako irakaskuntzaren gastuak ere bere gain har ditzan. Hitzarmena sinatzeaz

egon liteke.

Seaskak aldaketa handiak eragin ditu Iparraldeko irakaskuntza sisteman: euskal irakaskuntzaren hedapena eta hezkuntza elebidunaren sorrera.

Hogeita boskarren urteurrena ospatzeko uztailaren 1ean eta 2an hainbat ekitaldi antolatu ditu Miarritzen eta Baionan.

Haurren %5 ikastolan Seaskak dituen ikastolak



✓ Kontutan hartzeko

- **Salamancako Unibertsitatea.** Uztailaren 22an, Filologia Hispanikoko Goi Mailako Kurtsoen barne, hizkuntza politika Euskal Herrian gaiaren inguruan hitzaldiak emango dituzte M. Karmen Garmendiak eta Xabier Aizpuruak.

- **Euskararen motibazioak.** EHUK antolatzen dituen XIII. Uda

Ikastaroen barruan, HPINekin elkarlanean, uztailaren 11, 12 eta 13an *Euskara ikasi eta erabiltzeko motibazioak* izeneko ikastaroa egingo da Donostiako Miramar jauregian. Tfnoa.: (943) 21 95 96.

- **Literatura Jardunaldiak.** Euskaltzaindiak eratuta, uztailaren 22an izango dira, Gipuzkoako Foru Aldundian.

EUSKO JAURLARITZA

LEHENDAKARITZAREN IDAZKARITZA
HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA



GOBIERNO VASCO

SECRETARIA DE LA PRESIDENCIA
SECRETARIA GENERAL DE POLITICA LINGÜISTICA